

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin-behineko onespena ematea zenbait zerga eroldari

Miren Josune Irabien Marigortak, Araban dagoen Amurrioko Udaleko alkate naizen honek,
Jakinarazten dut:

Alkateak 2019ko uztailaren 8an, ALHAOn (78. zenbakia), argitaratutako dekretu bidez behin-behineko onespena eman zien 2019ko ekitaldirako zenbait zerga eroldari. Dekretu horren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea bukatuta, erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, eta jendaurrean jartzen da, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98.3 artikuluan xedatutakoak betetzeko.

- Hiri ondasun higiezin gaineko zerga (2019/1/S560 espedientea)
- Ezaugarri berezietako ondasun higiezin gaineko zerga (2019/1/S167 espedientea)
- Udalaren landa ondasun higiezin luberritze tasa (2019/5/S106 espedientea)
- Udal hilerriaren mantentze zerbitzua emateagatiko tasa (2019/4/S106 espedientea)
- Landa ondasun higiezin gaineko zerga (2019/1/S087 espedientea)
- Herri larreen aprobetxamendu tasa (2019/3/S106 espedientea)

2019ko azaroaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko egun baliodunetan, biak barne, ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, gorago aipatutako errolden ordainagiriak.

Tasa hori ordaindu behar dutenek zerga zorra Laboral Kutxak Amurrion dituen bulegoetan (Mendiko kalea, 1) ordaindu ahal izango dute, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 10:30era, adierazi den epean.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekar-gua aplikatuko zaio, indarrean dagoen Zerga bilketarako araudi Orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorriz; errekar-gu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Amurrio, 2019ko abuztuaren 1

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA